




## 8. Baliabideak

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat baliabide erabiliko ditugu. Produktuen **diseinurako eta biltegitratzerako, ordenagailuak, eta** askotariko **bulego materiala** (papera, boligrafoak...) erabiliko dugu. Gure online bezeroen arazoei aurre egiteko **sakelakoa** nahitaezkoa da. **Salmentarako eta biltegitzerako lokal** txiki bat izango dugu eta bertan gure produktuak gordeko ditugu. **Biltegia** Abadiñoko **Traña-Matiena** auzoan egongo da.

**Gu geu** izango gara denda honen **langileak**, ez dugu beste inor kontratatuko. Gure artean zereginak banatuko ditugu, langile bakoitzari, enpresa aurrera eramateko bete beharreko ataza desberdinak egokituz:

1. **Maialeni** produktuak hiru **dendetara eramatearen** lana egokituko zaio eta **banaketa prozesuan** arazorik egongo balitz, bera arduratuko litzateke.



2. **Ines sare sozialetaz** arduratuko da, eta aldi berean publizitatea egiteaz ere arduratuko da. Horregatik, gure **IKT** arduraduna izendatu dugu.

3. **Haitz** produktuen **ekoizpenaren eta kanpo harremanen arduraduna** izango da, hau da, bera arduratuko da paper bilketaz eta bera izango da gure **bazkideekin harremanetan** jarriko dena, baita gure produktuez hornitzea nahi duten **enpresa eta administrazio publikoekin** ere.

4. Azkenik, **Goizane** enpresaren **ekonomiaz** arduratuko da, hau da, **diruzaintzaz**, diru sarrerez eta kostuez. Arazo ekonomikoren bat egongo balitz, bera izango litzateke horren arduraduna, langile guztien laguntzarekin, noski.

